

PRESENCIA VASCA EN AMERICA 1492-1992 Una mirada crítica

Antonio Duplá

Gakoa Liburuak. Tercera Prensa, 1992. 181 págs.

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 41. Tomo XXXVIII. N.º 1 (1993), p. 213-216
ISSN -
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Gauza jakina da euskaldunek hasiera hasieratik hartu zutela parte *Ameriketako eginbe-harra* deitua izan zen horretan. Mendebalderantz abiatu ziren lehen itxasuntzietan arabarrak, bizkaitarrak, gipuztarrak, nafarrak, lapurditarrek, etabar, aurkitzen zirela. Eta bertara iritsi zirenean hantxe egin zutela topo bertako biztanleekin. Gerora, jakina, *aurerapenaren* izenean denetatik gertatu zela eta denetatik egin zutela, batzuren onerako eta beste batzuren kalterako.

Betidanik esan izandu da Historian finkaturik geratzen diren kronikak irabazleek idatzitakoak direla, eta egia da nolabait. Gerora, eta denboraren poderioz, Historiaren bertsio horiek itxuraldatzen joan dira, alde batera zein bestera ere. Eta honekin bi gauza nabarmentzen dira gutxienez, bat, Egia ez dela inon gauzatzen zatika eta apurka ez bada; eta bi, Denboraren aurrerantz joatea ere beste osagai bat dela, eta ez txikienetako gainera, Egiaren atalak pixkanaka osatzerakoan.

Eta orain, honekin batera lotuta, gogora datorkit Picassoren pasadizo ospetsu hura: Gertrude Stein idazlearen irudian oinarritutako koadro bat margotu zuen Picassok behin. Beste norbaitek berehalaxe aipatu zion koadro hark ez zuela inolako antzik Gertrude Steinekin eta Picassok hauxe erantzun zion: “Ez, oraindik ez du antzik, baina izango du”.

Egunotan irakurri dudana liburu hau: “Presenciavascaen América. 1492-1992. Una mirada crítica” oso interesgarria egin zait. Egilea Antonio Duplá irakaslea da Unibertsitatean eta izenburuak aski ongi adierazten digu zein izan den bere helburua liburu hau idazterakoan.

Liburu hau ez da datu berriak edota emaitza berriak eskainiko dizkigun inolako ikerketa lan bat. Ezta gai hau eta dagoen bibliografia guztia berrikusiko duen lan eskerga ere, gertakizun, pertsonaia eta hauen egoera politiko, ekonomiko edo kultural guztiak errepatatuko dituenak. Inolaz ere ez.

Baina bada zerbait. Izan daiteke dibulgazio-liburu bat, gai honetaz informazio zehatza eskaini dezakeena, eta interesaturik legokeenari bibliografia gehiago non aurkitu jakitera eman liezaiokeena.

Liburu honen egilea saiatu da arazoak modu kritiko batean aurkezten, behar izan denean ohizko interpretazioak diskutigarritzat jotzen, eta guztiori era zehatz eta aldiberean entretengarri batean egiten. Eta ez da gutxi.

Bostehun urte hauetan sortu den historiografia gai honi buruz ez baita izan beti zientifiko behar lukeen arlo batek eskatzen duen modukoa. Gauza asko ilundu, belztu eta itxuraldatu baitira a propos, beste mordo bat ezkatatu et ahaztu egin direlarik.

Euskaldunak ez dira beti zintzo, zuzen eta justutasunez aritu Ameriketara alde bateko historiografia ofizial eta panparroi batek nahi lukeen modura. Bostehun urte pasatu dira eta nola-

baiteko erreflesio garaia iritsi den honetan begiratu sakon, kritiko eta latza egiteko unea ere hementxe dugu orain.

Liburu hau irakurtzen amaitu ondoren berehalaxe ohartzen da irakurlea beste zerbaitetaz ere: holako eta antzeko liburu gehiago behar ditugula gure artean, forma aldetik eta baita eduki edo mamiarenetik ere. Lehen bait lehen esan beharra baitago, baita ere, liburua erraz irakurtzen dela eta dibulgaziorako egite asmo hori ongi lortua dagoela.

Orain gure desioa zera litzateke: lehen bait lehen izan dadila euskeratua liburu hau eta piztu dadila guregan berriz ere garai bateko ispiritu kritiko hura, bai Historia arloan nola beste edozeinetan ere. Eta momentuz horrekintxe konformatuko ginateke.

Joxemari Iturralde